

Egun arropuskeririk gabe esan dezakegu ordun baiño obeto ezagutzen dirala gure mintzaeraren iztegi ta berezitasunak, euskeraren erro, joskera ta gramatika osoa. Azkeneko berrogei urteotan aurreko 400'etan baiño liburu geiago argitaratu dira; ta gñera ugaritasunean ez-ezen azal eta mamiz obeak. Zorritxarrez itzegitez, tokiz beinizat, gutxitu zaigu euzkera, liburuz ordea, sendotu ta zabaldu. Ez dut antziñeko eta oraingo idazleen artean burrukarik sortu nai "la querelle des anciens et des modernes" antzekoa, baiñan klasiko izena norbaitzuei ematekotan XX garren gizaldikoak izanen dira nagusi.

Landuzale berri batzuek ba-ditugu aurrerantzean euskerareago eraman nai dutenak: Philosophia Naturalis,

Bacon, Newton eta Einstein'en eremuetara. Ez dago gaizki ametsa. Nik uste ordea, ez ote dan oraingoz urrutitxo joatea. Teoloji goitar, Kimika ta antzekoak ikasteko beti jo bearko dugu erderara. Gure indar eta almenak neurtu gabe geiegi eskatzea kaltegarri litzaiguke agian. Apaltxo iraungo ba'genu ere pozik. Gure literatura "quadrivium" otan sartuko nuke: 1º) Kristau-ikasbide ta erlisioa. 2º) Erri-Jakintza (ipui, kanta, komeri, bertso ta ele-berri). 3º) Gauzen ikaskizunak. 4º) Szientzi Matematikaren apur eta oñarriak, astapenak alegia.

Ona emen alik eta laburren esan aspalditik barnean neukana. Norbaitek beste iritzi oberik ba'lu gertu nago irakurtzeko bear bada nere utsegiteak aitortuaz.



EUSKAL - MITOLOGIAREN IKASPIDERAKO

Barandiaran'dar Joxe Mikel

Arkibidea: I.—Euskal Erria. II.—Iturburuak. III.—Siniskizunen Barutia. IV.—Gizonaren Elburua: "Etxe"ren kultura. V.—Lurreko numenak: "Mari". VI.—Lurreko numenak: "Akerbeltz". VII.—Lurreko numenak: "Erensugeta". VIII.—Eguzki numena. IX.—Ilargia Eusko-mitologian. X.—"Urcia", ortzia, ostria edota Ortzi lainkotua. XI.—Arkena.

I.—EUSKAL ERRIA.—Pireneko arrialde zaharretan bada bat Paleolitos-ondoan aren mugetara iritxi beste erri ta kulturen erasoaldi gogorari inguruetakoak baiñon tinkoago eutsi diona, eta zahar kutsua obekiago gorde al izan duna. Ain zuzen, Añamendi'ren bi alderdietako biztanleak errexen elkarrekin artuemanean ari ditezken eskualdean datza, ortarako bide ugari ta eroso ornatua. Erri ori, Euskal Erria duzute.

Beraz, Pirene'ko biztanleak nolako ziran ta nola ziarduten iakin nai luken ikerlariak, euskal kultura barrenki aztertu bear du, bearrik ere; erri artan ageri baitira, oraindik ere, edesti-aurreko bizikera ta izakeraren aztarnak.

Alabaina, Pirenetako beste zenbait eskualdetan ere, —Euskadi'tik landa—, euskal kultura edo antxiñako pirenetarrenaren aztarnak badiraute, bakarka ta urratuta bezela, ordea. Adibidez, Euskerak, antxiña ukan zun edapen eta iabetasunaren zantzuak utzi ditu. Anie Mendaitzetik Ariege ta Katalonia'rañoko Pirene-ibarretako izkelgi eta toki-izenetan. Orobat gertatu da euskal legediarekin ere Aragoi, Bearn, Lavandan'en eta abar, euskal-legeen kutsuak orantsuarte iraun bait-du aipatu eskualdetan. Baita antxiñako erlisio ta mitologiak ere, lorratzik asko utzi ditu eta argitasunik eman dezakete, euskal-mitologia ta

Kristautasunaren aurretiko aipatu tokietako erlisio zarrak bear bezela ikasteko.

Mesokefaleiak nabariazten du, geienbat, euskal gizatankera; lokiak irtenak, garezur-zuloko aurre-ertza txit sakon (ortik, nunbait, lepoa iasotzerakoan okotza pixkat makurturik gelditzea), azpiko masail-ezurra extua eta bidarra (okotza) zerbait irtena, sudurra luzexka ta zorrotza, e.a. (1) Ezaugarri auk etzaldeko Pirenetan bizi ziran neolitos garaiko gizonek ere bazituten. Beraz, euskaldunak gaurko beren lurrean garai aietan ere kokaturik zeuden. Urtiaga'ko (Gipuzkoa-Itziar) leizean egin ikerpenetatik eratzi dezakegu nolarebait, Pirene-enda Cromagnon-endaren bere-kautako eraldaketa edo evoluzino bat dala; azken enda onek, Azili-garaian (orain 10.000 urte), eusko-endaren zenbait ezaugarri ageri bait ditu. (2)

Gaurko Euskal-erritik landa, Pireneko toki zenbaitetan euskal endaren aztarnak ageri diran bezelatsu, aipatu lurraldetan arki ditezke euskaldun biziari urbillenetik datxizkion gizatankerak ere, Aran'go Ibarrean batikbat. Ortik susma dezakegu euskal-endak antxiñatean ukan zun edapen zabala. (3)

Aldi urruti aietan pirenetar bizilagunek asmatu us-teak, beren mitologian nolarebait gatzaturik agertzen zaizkigu. —Euskal-errikoan batez ere—, emengo siniskizun.

(1) Telésforo de Aranzadi, *Síntesis métrica de cráneos vascos* RIEV'en XIII'garren idaztarian.

(2) José Miguel de Barandiaran, *El Hombre primitivo en el País Vasco* (Donostia 1934) 64 orrialdean.

(3) José Miguel de Barandiaran, *Antropología de la población vasca*, IKUSKA'n I idaztia, 111, 265, 437 eta 679 orrialdetan.

Aranzadi-Barandiaran, *Exploración de la Cueva de Urutiaga* (Eusko-Jakintza II idazt. 285 orr.).

mitu, oitura ta gizalegean zantzurik asko utzi bait-zituten. Usteok, gainera, euskal-kulturako beste zenbait ekaiekin extu-extu elkartuta daude, eta ezin ditzakegu, bereizian, aiengandik bakanduta ikasi. Beraz, saio labur ontan, maiz aipatu bearke ditugu mitologi zarraren zantzuak barnean sakonki ezarrita daramazkiten gizarte naiz oikonomi bizi-modu zenbait.

II.—**ITURBURUAK**.—Pirene-lurraldeetako bizilagunak oraindik paganu ziran garaiko idazle zaharren agiriak ozo bakanak dira. Estrabon, Lampridius ta Prudentius'k euskotarren antxiñako erlisioaz ialki itz-apurrak, ezer gutxi argitu dezakete gure asmoa. Edesti-aurretiko arri-lanek eta erromatarren garaiko arri-idazkunek are argitasun geiago eman dezaigukete. Baita Euskalerriko elezar eta tradizioak ur-begi akitu eziñak ditugu *gaurko mitologia* nolarebait osotzeko. Gai ok bear bezela erabili ezkeror, ordea, antxiñako pirenatarren erlisioaren zenbait ertz ere argitu ditezke.

Azken aldi auetan gure fitxeruetan bildu ditugun gaiak, —Euskalerrian egin ikerpenen uzta ain zuzen—, eusko-mitologiari dagozkio geienbat. Gai auetxeekin antolatatu ere dugu, geienik, lantxo au.

Ez gera, ala ere, oraingo ontan mitologiaren lenengoz ari. 1922'gn, urtean eusko-mitologiaren laburpena ziteken nere lenengo saioa Bilbao'n argitaratu nun, "Eusko-mitologia" zeritzana. Urte berean, eta gai beronetaz, Tilburg'en (Holanda), Erriarteke erlisio-etnologiaren astean itzaldi bat egin nun. Itzaldi au "La Religion des anciens basques" izenburupean "Compte-rendu de la III session de la Semaine d'Etnologie religieuse" n urrengo urtean agertu zan (Enghien 1923). Eusko-mitologiaren beste lan bat 1923'gn, "Homenaje a D. Carmelo Echegaray" (Donostia 1923) deritzan liburuan argitaratu nun izen onekin: "Mari o el genio de las tormentas", "Homenaje a D. Eduardo de Escárcaga" (Vitoria 1935) idatzian, "Huellas de artes y religiones antiguas del Pueblo Vasco" zeritzan idazlana agertu nun, 1938'gn, Copenhague'n bildu *Antropologi ta Etnologi Iakintzaen Erriarteke Batzarrean*, gai ontaz beste itzaldi bat egin nun eta 1946'gko Iorrrailaren 16'an Londres'ko *Royal Antropologikal Institute* n beste bat: baita Paris'en ere, 1947'gko Uztaren 13'an "Première Conférence Internationale du Folklore" n, Frankfurt'ko "Paideuma" aldizkarian "Prähistorischen Höhlen in der baskischen Mythologie" (Leipzig, 1941) izenpean, ikas saio bat argitaratu nun.

"Eusko-folklore" illerokoan 1921'garreneko urtetik 1936'gko. Uztailera, eta arrezkero 1947'garrenean agertu diran sei zenbakietan eman genitun ekaiek, baita "Anuario de Eusko-folklore" (Vitoria 1921-34) amalau idaztietan agertu diran elezar eta erri-siniskizun ugariak ere, mitologi kutsua dakarte. Beste ainbeste esan ditekete W. Wester'en "Basque Legends" eta Çerquant'en "Legendes et récits populaires basques" deritzaten liburuetaz ere. Jean Barbier'en "Legendes du Pays Basque" eta Azkue'en "Euskalerraren Yakintza" n mitologiari doazkion ekairik aski arki ditezke.

Ene adiskide Caro-Baroja'tar Juli iaunak, ondo argitu idazlan bat orain berriki eman digu "Sobre la Religión Antigua y Calendario del Pueblo Vasco" deritzana (Trabajos del Instituto Bernardino de Sahagún, tomo VI Madrid 1948). "Ortzi-iainkoa" ren ingurukoetaz ari da, ots, eguzki-iainko ta ari dagozkion mituetaz, illargi-mitologiaren eta lurreko iainko ta numenetaz.

Lan ontan, neonek bildu ta gorago aipatueta agertu gaiak, geienbat, erabiliko ditut.

III.—**SINISKIZUNEN BARRUTIA**.—Erriak diñonez, DANA, ez da soilik gure zentzuek suma ta atze-

man ondoren arrazoiak sendetsia. **IZENA DUN** guztia baizik. Bereizketa au egiten du, ala ere: norberak, norberak ateman eta ezagutu zerbait ziurra da; orregatik boro-reki ateman eta ezagutu zerbait ziurra da; orregatik boro-reki aitortu ditekete, urrengo esakunetan bezela: "au esan du" "ori egin dute", "ala da". Beste norbaiten bidez edo esanez ezagutua, ordea, ezin ditekete bipilki eta bete-betean aitortu. Orregatik "omen" ka (edo "ei" ka Bizkaian) antolatuta esakerak erabili oi ditute, urrengo esanetan bezela: "Au esan omen dute", "ori egin omen dute", "izena doon guzie emen da". Ezaguera malla auen alde kontuan artu bearrekoa da euskaldunek esan eta edasiak berean obeto ulertzeko.

Lurra, ikuspegi laburrean badare, norberak ateman dezaken zergauza da. Lurraren beste alderdiak *omenka* eman oi ditute edota elezarretan gatzatuta, zerbait aundi ta mugagabe bai'litzen, azalez lau xamarra mendi gotorretz ta itsasoz iantzia. (4)

Lur-azala ez da zerbait geldia, eskualde batzu iaso ta beste batzu apaltzen baitira, eta mendi aunitz izaki biziak lez azten dira. (5)

Lur-barnean, eremu muga-gaitzak arkitzen dira esneko ibaiez lakainduak. Ala ere, gizona, azalean bizi dan bitartean ezin ditekete toki aietara urbildu. Aipatu lur-barneko eremuak zenbait osin, zulo ta leizekin bide batzuez elkartuta daude; Urbion'go putzua, Okina'ko zuloa, Anboto, Muru ta Txindokiko leizeak, esaterako, Eremu aietatik sortzen dira eguratseko zenbait gertakari ere; ekaitz-odei beltzak eta aize zurrumilloak batik bat. (6)

Ozkarbiari, toki batzuetan, *Ostri* deitzen diote. (7) Antxen mugitzen dira izarrak eta sartzaldetik etzatera-koan "itxas gorrietan" sartzen dirala diñoe, lurpetik ibil-bideari iarraitzeko. Orregatik, eguneko ibil-bidean lur-azala argitzen dun eguzkiak, etzan ondoren lur-barneak argitzen ditu. (8)

Eguzkia ta illargia lurraren alabak dira, eta ortziko ibillaldia bukatu ondoren, aren magalera ioaten dira. (9)

Eguna lur-gaiñeko bizilagunena omen. Alabaina, lur-azala, gauez, iratxo, inguma ta illen arimena da, illargiak aientzako argitzen bait-du. Gizonak *egunezkoak* dirala esan oi da; iratxo ta illen arimak, berriaz, *gauezkoak*. (10)

IV.—**GIZONAREN ELBURUA**. "Etxe" ren *kultua*.—Oraindik ere errian tinko dirauen uste iator baten aiora, etxeari sendoki atxikita arkitzen da euskalduna.

Etxea lur eta abaro da, eliz ta illerri, euskai, senide il eta biziaren batzar-lekua; oraingo bizi-lagunen eta arbasoen arteko elkarpedea.

Lege-zar eta oituretan gatzatuta arkitzen diran bizi-modu nagusienak, etxearen inguruan garatzen dira, baita il eta biziaren arteko elkarbide dan mitologi-sistema osoa ere. (11)

Etxearen billaldean dabilta euskaldunen ustekizunak oro, urrengo io-mugaren atzetik, ots, etxeke guziak arbasoekin elkartuta, neke ta oñaze gabe, batasunik eta maitasunik ederrenean bizi ditezten, oraingo ta geroko bizitzan.

(4) Santiago Alcober, *Antropología de la población actual de las comarcas pirenaicas* (Pirineos, I urtea 1 zenbakia 97 orr. Zaragoza 1945).

(5) *Eusko-Folklore*, I zenb. 1-2 orrialdetan.

(6) *Eusko-Folklore*, XIII zenb. 1-2 orrialdetan.

(7) *Eusko-Folklore*, I zenb. 2 orr., II zenb. 6-7 orrialdetan.

(8) Atan aldean *ostri* itza ortzia izendatzeko erabiltzen da. Odaiek ere deitzen diote.

(9) J. M. Barandiaran, *La religion des anciens basques* (Compte rendu analytique de la III^{me} session de la Semaine d'Etnologie religieuse, Enghien, 1923).

(10) Mañariko siniskizunen arauak.

(11) *Eusko-Folklore* LXXI zenb. 36-40 orrialdetan.

Etxea eliz bat da.—Esan beartik ez supisguaren (Andre Mari deritzan numenaren irudia) babesean ezarritako tegi guren bat danik, izatez goitiko indarrez inguratua. Ala darakuste baratzetan, eta etxeetan ere, iartzen dituten ereinotzek: elorri-txuri, lizar-abar, donibane-lore eta eguzkiaren irudi dan, kardu-liliak; mitiku-almenak dituten aizkora ta igitaiak. Arbasoen arimen tegi edo bilgune dala, arimai, etengabe, argia eskeintzen zaie, oitura zar batek agintzen denez; supizguan, berriz, beti bizi gordezen dute txingar bat "illei lazto txiki batez bederik argi egin bear zaiela"-ta; leiotako erlatzetan, iakiak ezartzen ditute zenduentzat eta ezkaratz edo etxeko sarrera nagusiak eguzkiberiguntz itzulita egiteko ekandu zarrak ere orixe erakusten digu. Gaiñera etxea senitarteko illerri ere bada.

Etxearen gurentasuna, bestalde, argi asko erakusten digute etxeek eleizan dituten "iarleku" bereziek. Iarlekuok etxearen luzapen bat baizik ez dira, aren gandik inola ere erauzi edo aldendu ezin ditezken zatiak izan ere. Aietan bete oi ditute etxeko zenduen alderako zenbait ritu: arresponstuak abestuz, argizari, iakiak eta dirua ere eskeinitz. Iarlekuan, etxean oi bezala, senide bizen bearkizunetan illen arimei deitzen zaie lagun eldu ditezten. Beraz, iarlekua, liturgeiari egokitu antxiñako oitura iator bat besterik ez da, eta egun, toki artan egiten diran rituak, Euskalerrian kristautasuna sartu baino len etxeetan egiten ziran kultuen irudia dira. Oraindik erri askotan bizi dan beste oitura iakingarri au geitu genezake: oiñordekoa eskontzerakoan, emazte berria ez da etxekandretzen ezta senarraren arbasoen elkartasunean sartzen, etxe berriko iarlekuan illen arimai argi ta ogi opariak egin ondoan baizik. Dirudinez, antxiña, etxean bertan egiten zan ori, Zuberoa'ko ekandu batean ageri denez: an, etxeren baten morroi sartzen danak, iru bira egin bear dizkio supizguari regi berrira oitutzeko. (12)

Etxea Illobia ere bada.—Etxe bakoitzak bere illobia du —edo zeukan— elizaren aldamenen edota eliz-barnean: eliz-barnekoa estaltzen zun il-arria ain zuzen, iarlekua zan. Dana dala, etxetik bakandu ez ditekenez zati bat da. Illobi eta iarlekuetako idazkunak ere etxearen iabatasuna erakusten digute. Ala ageri da Sara'ko urrango idazkunetatik: LECABEAKO TONBAC 1838: HAURIZ-MENDIKO YARLEKHUA 1824.

Kristautasuna zabaldu baino len, ordea, etxea zan illobia eta il-opariak ere bertan eskeintzen ziran, gorago aipatu ditugun zenbait aztarrenek darakustenez. Are argiago erakusten digu bataio gabe il diran aurtxoak etxearen egalpean edo baratzan eortzeko oraindik ere bizi dan oiturak: kristau-legearen saietsean bizi izan diranak iltzerakoan beuren etxeko egalpean eortzi bear ditalazko erriesakeretan tinkotutako siniskizunak; leiotan, —baratza edo etxe-illeri gaineke leiotan—, argiak piztu ta opariak (iaki naiz diru-opariak) ezarteko ekanduak: aipatu argiek zenduen arimak lurpean argituko ditutelazkoan, eta iakiak iango. Bada siniskizun bat elizaren inguruan iru bira ezin egin ditezkeela diñona, ezta illerriaren inguruan ere. Beraz, siniskizun onek, etxea, eliza ta illerria berdintzen ditu, lakin da, etxearen inguruan ere iru bira ezin ditezkeela egin.

Etxe, eliz eta illerri arteko bide santuek ere, argi asko erakusten digute zeinen elkarturik dauden iru tokiok zentzu mistiku batean bilduta: bide oriei elizbide, gorputzbide, ilbide, kutzebide, etrebide, andabide t.a. deritzate, erri bakoitzaren ariora. Andik eraman bear dira gorpuak elizara ta illerrira; bertan, batez ere bide-gurutzetan, zenduaren oe-lastaja erretzen dute, elizan il-elizkizunetan ari

bitartean; bertan, zenduaren etxe-aurrean, sua pizten dute, eta aokikoak, illotzari lur emanda illerriatik itzuleran, aren inguruan biltzen dira otoitz egiteko. Ala da oitura oraindik, Benaparroako errixa askotan. (13)

Beraz, etxea, oikonomi, gizarte ta erlisio legez antolatutako bilkura bat duzute, sendiak osotua, oraingo bizilagunen eta zenduen arimen elkartasuna, oitura iatorren eta ezin utzizko erlisio-eginkizun zenbaiten kabi. Orre-gatik etxea, babesleku ziur ta ezin autsia gertatu da. Ezin diteke bere iabatasuna atzetara aldatu; oso-osorik eta zatatzeke, oiñordeñoetara bear du. (14)

Etxea toki guren, bizi ta illen bilkura dan ezkerro, bertako biztanle guztiak ein batean arkitzen dira; ortik, nunbait, sortu zan etxearekiko eta ango biztanleekiko orren itzal aundia. Etxe guzietako biztanleak itzalgarri dira izan ere, orok berdintsu, eskubide ta eginbide guren berdiñez iantziak. Sendimendu ta oitura ok zapuztu ta autsiko lituken edonork, aidekoak lituke laster gaiñean, arimek biali eritasun ikaragarriak, alegia.

Euskal-basetxean oraindik ere nabari diran oitura auek, are nabariago ziran lege-zarren garaian. Antxiñatean tenpluei soilik zegokien babes-eskubidea (derecho de asilo), euskal-legeak etxeari orobat ematen zion. (15) Bizkaiko Lege-zarrak agintzen zunez (XVI Atalburuko 3^{gn} legea), bizkaitar bat ere ezin zitekean atxillotu zorrak ziralata, etxerik ere ezin zitzaiokeen kendu ezta zaldirik ere, egiune idatzietan bere aitor-semetasuna ukatu ba'lu ere. Bizkaiko legean bertan agintzen zan: "ez merinu, ez beselako agintaririk, ezin zitekela lau beso baino areago etxe batera urbildu iabearen gurarien aurka, eskribau edo idazkariarekin izan ezik, eta ar(tu)-garri zitezken ondasunen kopurutza iasotzeko soilik.

Etxe-iaurespidea (kultua) nori zor zaion.—Gorago ialki ditugunetatik ulertu ditekenez, etxe-kultua arbasoen arimei zuzendua duzute. Argi ta aizeindarraren iduripean agertzen omen dira arima ok. Toki batzuetan itzala bezelako dira, eta gerixeti deitzen die. Bizkaian batez ere. Erio da eriotza nortua, eta Erio'h arimak gorputzetatik bakan-tzen ditu. Arrezkero aien egonlekuak lurpeko eremuak dituzute. Ala ere, gauez, maiz lur-azalaratzen dira, batez ere euren etxeetara ioateko, senide biziak laguntzeko, opariak iateko, sukaldean iostatzeko eta il ziranen garbitzeke utzi zituten zorrak zuritzeko.

Arimen bideak, lurpe-eremuak etxeekin elkartzen dituten bide izkutuak dituzute. Euskalerriko zenbait artzulo ta leize arimen bidetzat dauzkate. Elezar batzuetan bide auek sukaldeetara dioaztela ere badarasate antxinako etxeetako sukaldeetara batik bat: Arberua'ko Gaztelura, Ezpeleteko Eihetaxaharre'ra, erri bereko Jauregi'ra, Eldua-iengo Sales ta Ermitatxiki'ra; Ataungo Andralizeta'ra, Aizarnako Egaña'ra, Bergarako Agorrosin'era e. a. Aipatu etxeetako sukaldeak arima ta iratxoak biltzen diran artzulo ta leizeekin bide izkutuz lotuta omen daude. (16)

Zerbait egiteko edo eskatzeko arimak lugaiñeritzen diranean, argi, itzal, mukulu-beltz iduripean agertzen dira, edota ots berezi batzuez ezagutarazten. Orrela agertzen dan arimari argi deritzaio Laburdi ta Naparroan, heotsegile Zuberoan, izugarri Ataun'en, eta gerixeti Bizkaiko zenbait errietan. Beste toki batzuetan arimaerratu ere esaten die. (17)

(13) Alain Fougères, *Les droits de famille et des successions au Pays Basque et en Bearn d'après les anciens textes*, 69 orrialdean (Bergerac 1938).

(14) *Anuario de Eusko-Folklore*, III Vitoria 1923.

(15) Bonifacio de Echegaray, *La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas* (RIEV, XII eta XIV idaztietan).

(16) Bonifacio Echegaray, *ibidem*.

(17) *Eusko-Folklore*, II zenbakia 6-7 orrialdetan.

(12) *Eusko-Folklore* LXX zenb. 35-36 orrialdetan.

Orainarte esandakoetatik ageri denez, euskaldunak oso goganbearturik arkitzen dira arbasoen arimekin batez ere. Goganbear orrek daramazki erlisio bidetik ez-ezen beste bizibide askotatik ere: oikonomi (etxea iraunkor da eta osorik oiñordekoetara bear du), senide ta urkoekiko gizalege bidetik, baita eskubidetzatik ere.

Etxe-kultuaren apaiza.—Beraz, etxeak, erlisio-kutsu berebizikoa du: illerri ta eliz duzute erabat, eta eliz ortako kultua etxekoei dagokie.

Etzekoandrea da erlisio ortako apaiza. Berak betetzen ditu, izan ere, zenbait ritu: etzeko zenduei argi ta iakiak eskeiñi, etzeko senideak urtean bein onetsi, arbasoekin artu-emanen irauten irakatsi, baita nagusiekiko lotsa izaten eta auzoekiko bearkizunak betetzen ere. Bera da elizako iarlekuan eta illerriko obian etzeko ordezkari, elizkizunetan eta toki aietan egiten diran zenbait zerimonitan buru. (18)

Etzekoandrea edo etzeko beste emakumeren bat zerimoni oietara ezin ioan ditekenean, *andereserorak* ordezkatzan ditu, oni bait dagokio bereziki, eginbide au elizan.

Andereserora beraz, apaiz-eme bat bezelatsu da, etxekultuaren apaiz diran etzekoandre guzien parrokian ordezkari.


Ortik nunbait, euskaldunak emakumezkoari dion itzal eta lotsa aundia. Orregatik, sarri, anaiak aldebat utzita, emakumezkoa etzeko oiñordekotzat artzen dute.

Lege-zar garaian, iaiozak zekarrenez oiñordekoa izentatzen zan, eta len-iaioa, —ar ala eme—, gurasoen ondorengo gertatzen zan etxe iaubidean; ala ere, lege ori gurasoek alda zezaketen (Marcel Nussy Saint-Saëns, *Contribution a un essai sur la coutume en Soule*, 69 or.). Beste Europako lurralde guzietan, ordea, Germandar-eskubidetzaren aiora, gizonezkoari soilik ematen zitzaion oiñorde izateko eskubidea.

Etxean gora aundieneko bearkizunak betetzen ditutela-ta, antxiñakoek ere emakumezkoendako itzal aundia erakutsi zuten. Andrea etxean egoten zan, lurrak lanzen zitun, eta etzeko beti-egote arekin eta lanarekin etzeko oitura iatorrak irozotzen zitun, senarra artaldeekin ara ta ona zebillen bitartean. Era ortara, emakumeak bear zukean etxe kultuaren aitzindari ere. Orrela geitu ziran emakumearekiko dedu ta itzala gizartean eta erriarazoetan ere.

—iarraitzeko

(18) *Anuario de Eusko-Folklore* passim. III'garrena.



Euskera Arriaroan

AITZ, ZENBAIT TRESNA IZENEN ERRO

Etxaitar

Aitz itzarekin osatutako burdin-tresnak, euskera arriaroan mintzatu zaneke lekukorik bikañenak dira. (1)

Kanpion'ek ederki dionez, "aitz" itzakin osatutako itzoek onokoxe au aditzera ematen digute: "euskoak, euskaldun izanez, au da, euskeraz mintzatuz, igaro zutela Arri-aroa alderik-alde. Edesti aurreko garaietatik Europa'n kokaturik ikusten ditugu, edestialdian etorri ziraneko berririk ezpaita. Beraz, euskaldun erriaren jatorria antziña-antziñakotzat jo bear degu, menastaren ezagupena Europa'ko sartaldean edesti aurrekoa degun ezkeroz". (2)

Aipatu ditzagun orain, "aitz" oñarritzat arturik orainaldira eldu zaizkigun itzak.

Aizkora (aitz-k-ora), "hacha". *Aizkorra* ote zan lenenaldian, *aitz gogorraren* laburkizun ala *aitz-k-orr*, "piedra aguda"? (3) Bigarren au obeto derizkiot gure ustean zuzen ba'gabiltza.

Aizto (aitz-to), "cuchillo", etzez-itx "arri txipia".

Aitzur (aitz-ur) "azada". Eskuarki "atxur" esan oi dugu. *Aitz* zorrotza esan nai du. *Aizkora*'ren erro berberak ditu noski, azalez aldatuxe egonarren.

Guraizeak, "tijeras". Bigarren osakaia aitzetik ote dun ba'dirudi. Aurrekoa igarkaitza benetan.

Artaziak, "tijeras". Bizkai'ko itza degu eta "artazijak" ogutzi oi dute. *Ar-to-zi* ote, "punta de la piedrecilla"?

Aiztur, guraizearen irugarrenengo izena. "Aitzur", "azada" ren jatorri berbera du (aitz-t-ur) erakuntza legea apurtxo bat bereiztuarren.

Arzi, "pico de cantero". Bere osakiñak *ar=piedra* eta *zi=punta* dira.

Buztari, *uztari*, "yugo". Kanpion'ek dionez *buruz-t-arri*. Neri euskal-izaeraren aurka iduri zait z gaikin (instrumental) ori itz erakuntzetan. Euskal-izaerari ego kiago ta legunago datorkio beste erakuntza au: *buru-t-ari*, *burtari*, *buztari*, r izkia aisa biurtzen baita s edo z itz bilkuntzetan. Adibidez: *orri-to*, *or-to*, *osto*; *illargi=illaz-ki*, "luna"; *ernai=esnai*, "despierto" ta ebar.

Azpil, "plato". *Aitz-bil*, "piedra redonda".

Aizpira, "artesa". *Azpil*'en erro berberak ote?

Izkillu, "arma". *Aitz-gaillu* = *aizkallu* = *izkillu*, "instrumento de piedra".

Azkon, "flecha", "dardo". Azken *on* orrek zer esan nai ote du? *Aitz ona* esan nai ote? Ba'likeke, baño enintzake baiesten ausartuko.

Nabar, "reja del arado". *Naba-ar* ote, "piedra del campo"?

Zaphari, "almirez", "mortero". *Zapa*=compresión eta *harri=piedra*.

Aitzurrotx, "tridente". *Aitz-zorrotz* du jatorri.

Zulakaitz (zulo-k-aitz), "cincel" Eibar'en.

Ba'dira beste itz batzuk *arr* ado *aitz* itzak ain ageri eztiranak.

(1) "Orígenes prearios del Pueblo Vasco". E. de Gandia. 57-58'gn. orri-aldeak.

(2) "Los orígenes del Pueblo Euskaldun". A. Campión. III'gn atala, 159'gn. orrialdea.

(3) "Or", "un", ene iritzean "agudo", "cónico", "sobresaliente" edo orrelake zer bait da. Aneto mendi alboan mendi-punta zorrotz-zorrotz bat badago Astor izenekoa (Catalunya'ko alderdi au euskal-kutsuko izenez orniturik dago, Pirene-lantzea deritzaion kultura barrutikoa baita). Orta itxorkuna: *aitz-t-or*, "peña aguda". Bestalde, Aralar'ko artzaiak mendi punta zorrotzai ttuttur esaten diote. Urdaneta'ko ttuttur(e) ta abar.



Euskal-Mitologiaren Ikaspiderako

Barandiaran' dar Joxe Mikel

V. — *LURREKO NUMENAK. "MARI".* — Arbasoen arimen inguruan saldoka mitologi-irudi ageri dira, gutxi-asko aiekin zerikusi dutenak: geienak, aiek bezela, lurrari lotuak. Numen ta izenak dira, zerbaiterako tema ta irudigaiak: tema batzu iatorrak, geienak, ordea, mitologi ta kultura arrotzetatik ekarriak, Euskalerriaren edes-ti-bidea barna aldika girotu ta egokituak. Onatx numen zenbaiten izenak, eginbide ta ezaugarrien arauz sailkatuta:

Sorgin. Belagile, Sorsain. — *Lamina,* Lamiñaku, Lamia, Amilamia. *Sindu-Maindi,* Maide, Mairi, Intxixu. *Ientxu,* Ireltxu, Iritxu, Idittu, Iditxu, Iruztargi. *Inguma,* Gaizkiña, Gaixto, Aideko, Galtzagorri. *Basajaun,* Basandere, Alarabi, Tartalo, Anchi, Gizotso. *Odei,* Mikelats, Frakazar, Eate, Erete. *Erensuge,* Sugaar, Sugoi, Culebro, Maju. *Txaalgorri,* Zezengorri, Beigorri (abere irudiko numenak). *MARI,* Yona-gorri.

Mari'ren izenak. — Mitologi-izaki auen ezaugarriak ez daude ondo mugatuak, eta emen izen bati dagozkionak, aratago beste bati dagozkio.

Bada, ordea, numen bat, eginbear eta ezaugarri geienak bereganatu dituna. Beste numen guzien burutzat daukate. Oraingo bere izenetan zarrena *MARI* dula dirudi. (19) Itz onek —*andre* esan nai du toki batzuetan—, beti darama izen-lagun bezela, erri bakoitzaren ustez agertu oi dan leize edo mendiren baten izena.

Basoko Mari-e, Urdiain'en. *Aldureko Mari-e,* Txindokiko *Mari-e,* Amezketan. *Puyako Maya,* Oiartzun'en. *Mari Munduko,* Ataun'en eta Beraztegin. *Mari-e Labako,* Izpasterren. *Mari Muruko,* Elduayen'en. *Mari-mur* (Mamurr). *Leitzan.* *Marije Kobako,* Markiñan. *Mariarroka,* Olazagutian. *Mariurra,* Garay eta Berrizen. *Andre Mari Munoko,* Oyartzun'en. *Andre Mari Muiroko,* Arano'n. *Muruco Damea,* Ataun'en. *Aralarko Damea,* Amezketan. *Putterriko Damea,* Arbizun. *Illunbetagainako Dama,* Lakuntzan. *Beraingo Lezeko Dama,* Lakuntzan. *Aketegiko Damea,* Zegaman. *Anbotoko Dama,* Zarautzen. *Amuteko Damie,* Azkoitian. *Arrobibeltzeko Andra,* Azkainen. *Anbotoko Señora,* Ayan. *Aretxabaletan* eta *Gipuzkoa* ta *Bizkaiko* beste erri askotan. *Anbotoko Sorgiña,* Durangon. *Aketegiko Sorgiña,* Zegaman. *Arpeko Saindua,* Bidarraia eta *Naparroa* ta *Laburdiko* erri eskotan. *Gaiztoa,* Oñatin. *Sugaarra,* Ataunen. *Iona-Gorri,* Leskun'en. *Dama ta Hechicera,* D. Pedro Kondearen "Livro dos Linhagens"en (XV'garren mendean).

Orra, numen onen zenbait izen. Guk ordea, labur *MARI,* deituko diogu. Orrela deitzen zioten Urkiolako artzaiek Anbotoko mendiaren oinuan dagon *Zabalaundi* ibarretik mendi artako leze-zulo bat erakusten zigutenean: "ara or Marijen kobia".

Dirudinez, izen onek, noizbait, emakume ere adierazi zun, edo bear bada, erri geienetan ondoan ezartzen dien *andre, dama, señora.* Itzok erabilli izan ditute, beintzat, numen ori izentatzeko. Ataun'en oraindik ere, maiz darabilzkite urrengo esakerok: *oi da marie!* (ori da izateko *andrea!*); *ez da mari txarra oi!* Bear bada, *Maria* kristau izenetik sortu zan; ala ere, ezin dezakegu baztertu beste nunbaitetik sortu zitekelazkoa. Iakingarria da *MAYA* ere izentatzen dutela —*Mari'ren* senar *Maju'rena* gogorazten digu—, eta eusko-mitologiko beste numen batzu *Mairi, Maide, Maindi, Mairu* dirala, azkeneko au, *moro* erdel izenaren kidekoa bada ere geienetan.

Izen oni darraizkion izen-ondoak, erriak numen ortaz zedukan aburua erakusten digute. *Andre Mari* izenak, Amabirjiñari ematen zaion izen berbera ain zuzen, argi asko erakusten digu zein andi ta gurentzat zedukaten *Mari* euskaldunak. *Arpeko saindua'rena* ere agurgarri ta lotsa andikoa da. Ez, noski, urrengo gaitz-izenok: *Gaiztoa, Sorgiña, Hechicera* t.a.

Sugaar izena, suge arra alegia, *Mari Munduko* eta *Anbotoko Dama'k* adierazten duten egurats-fainomenu berbera izendatzeko darabilte Ataun'en. Antxiña, baliteke *Mari'ren* senarra izentatzeko erabiltzea ere, Azkoitiko *Maju* ta *Dimako Sugoi'ren* zentzu berean. *Erensugea'k* ere, agian, beste ainbeste adierazten du, *Sugaar* deritzan egurats-fainomenua azaltzeko darabilten ezkerok.

SORGIN deitura ez da arritzeko *Mari'ren* izenen artean. Ain zuzen, *Sorgin* bulkoaren sareartean atxikita dabilta, Europa'ko folkloaren, elezarretako edo antxiñako mituak. XVI'garren mendean Euskalerrian egin azti ta sorgiñen otsandiko auziek erakusten digutenez.

Mari'ren itxurak. — *Mari* emea dala ageri da ipuietan, euskal-mitologiko numenik geienak bezelatsu.

Maiz, *andre* apain baten itxuran agertzen da *Mari*, urrezko iauregi bat eskuartean dakarrela. Durango'ko elezarrean bezela. Era berean agertzen zaigu *Elosu, Bedoña, Azpeiti, Zegama, Errenteri, Azkain* eta *Laskun'ekoetan* ere. Azkeneko erri ontan, gorritz iantzita, ordea.

Amezketan bildu ditugunetan, lau zaldidun gurdi batean eserita doan *andre* baten itxuran igarotzen da ekaitzaldietan odeiak barna.

(19) J. M. de Barandiaran "Mari o el genio de las Montañas" (Homenaje a D. Carmelo Echegaray deritzan liburuan - Donostia 1923).

Zaldibin sua darion emakume baten itxuran ikusi dute. Bedoñan, berriz, garrez inguraturik eguratsean arat zerua barna ioaten ikusi dute.

Errexillen diotenez, gar-iario dioan emakume baten itxura omen du, noiztanka erratsak naiz kateak tatarrez eramanki; ateratzen dun zarataren arauz, alegia.

Oñati ta Zegama'ko ipuietan, ahari baten gainean dabilen andre bat.

Azkoitin, burua illargiz inguraturik zeraman emakume aundi bat bezelakoa ikusi zuten.

Garagartzakoek diotenaz, egaztiak bezelako oiñak ditun emakumea omen.

D. Pedro Kondearen "Livro dos Linhagens" en, berriz, auntzaren oiñak ditu.

Auzan (Baztango mendia) akerraren itxuran agertzen da.

Aranoko ipuietan zaldiaren.

Oñatin, berriz, bigantxaren irudipean ikusi zuten.

Zegamar askotxok belearen itxurapean ikusi zuten Akelegiko leizean.

Orozko'ko siniskizunen ariora, Itziñe-mendiko Supelaur leize aundian bizi omen da, ta antxen agertzen omen dira saldoka Mari ta bere lagunak, sai edo arranoen irudipean.

Oñatiko beste ipui baten, aurrekeraz emakume antza dun zugaitz baten irudipean agertzen da; beste batean diotenez, alderdi guztietatik garra zerion zuaitz baten itxuran agertu omen zan.

Eskoriatzan, aize-bolaraz ezagutarazten omen da, noiztanka.

Durangoko ipui batek dionez, odei txuri bat bezela agertzen omen da sarri. Orobat diote Izpazterren ere.

Ostarkuaren antzean ere ikusi dute noiztanka.

Oñati, Segura ta Orozkon suzko bola baten antzean ikusi dute.

Sarri, suzko itai baten itxura artzen du, Ataun, Zegama eta Ganboako Zuatzun darasatenez.

Zaharburuko aitzuloan (Bidarrai) arri biurturik ikusi diteke, giza bizkar baten iduriko, ortxe-antxe. (20)

Dana dala, elezarretan artzen ditun itxura guziok gorabera, Mari emakumea da.

Iize-itxurak lurpeko eremuetan artzen ditu Mari'k, geienbat. Baita andik landa ere, lur-azalean eta ortzia alderik-alde igarotzen dunean.

Beraz, lurpekoei dagozkien elezarretan agertzen zaizkigun zezen, ahari, aker, zaldi, suge, sai t.a., abere irudiak. Mari eta bere menpekoen itxurapenak baizik ez dira, erriaren ustez munduko gertari edo fainomenu guzien sortarazle diran lur- numen edo indarrak.

Ipuietan ageri diran elkarren arteko antzaldaketak, ustekizun au sendotzen dute.

Mari'ren egoitza.—Mari'ren egoitza lurpeko eremuetan dago. Ere mu auek, ordea, lur-azalarekin bide bereziz elkarturik daude. Aipatu bideak, aitzulo ta leizeetara dioaz. Orregatik, Mari'k, toki orietan egiten ditu bere agerpenak beste edonun baino maizago. Mari'k bere burua argi erakusten dun mendi, aitzulo ta leizeen izenak erriak aipatzen ditu. Ala ikusi diteke: Gorbea, Orduñako Aitz, Oiz, Mugarra, Aizkorri, Aralar, Ayako Aitz, eta Ory mendietan: Baltzola, Supelaur, Atxabi, Sarrimendi, Marijen Kobia (Anboto), Gabaro, Kantenzar (Jemein), Otoy, Damazulo (Ispazter), Bizkaiko artzuluetan: Kapildui, Okina eta Zaldiarangoetan Araban; Garagartza, Kutxeberri, (Eskoriatza), Etxorrotz, Gaiztozulo (Oñati), Aketegi, Sagarzulo (Ataun), Agamunda (Ataun), Ustaatsu

(Ataun), Iturriotz (Ataun), Ubei (Ataun), Murumenui, Marizulo (Aralar), Txindoki, Azarizulo (Ametzkoa), Olenoi (Beizama), Otsabio (Lizartza), Leizazulo (Lizartza) Gipuzkoa'ko leizeetan: Odebe (Altsazu), Udabe, Beraingo-leze (Burunda), Mugiro, Akelarre (Zugarra-murdi) eta Auza'koetan Naparroan; Arroibeltz (Azkain), Lezia (Sara), Faardiko Lexarrigibela (Ahuski), Lezenobi, Beli, Azalegi eta Otsibarre (Camu) Laburdi-Zuberokoetan.

Geienen ustez, Mari'ren egoitza aberaski apaindurik dago, urte ta arri-pitxiz gainezka. Aketegi leizeko oreak urrezkoak dirala diote Zegaman.

Zenarrutzako ipui batean diotenez, arxillo ukan zun norbaiti Mari'k eskubete ikatz eman zion, eta leizetik ateratzekoan urte ditziratsu biurtu zitzaion.

Otxabioko leizean (Lizartza) urrezko txekor bat omen dago eta Zarautzen darasatenez Mari'k urrezko arilkaian ariltzen omen du. Amezketan ere orrelako zerbait diote, ots, Aralarko Mari'k urrezko arilkai bat daukala.

Arroibeltz-leizeko Andrea urrezko alki batean exerita dago eta erri artako elezarrek diñoskunez txekor gorri bat agertzen omen da leize artan.

Bestetara gertatzen da Zarautzko ipui batean. Mari sarri erakusten dan Anbotoko leizean urrezko diruditen gauzak omen daude, kanpora ateratzekoan, ordea, abarustel biurtzen omen dira.

Mañarin diotenez, Mari bizilekuz aldatzen omen da: zazpi urtez egoten omen da Anboton, zazpi Oiz'en eta zazpi Mugarran. Amezketan uste dutenez, Aralar'en egotaldi batzu egiten ditu, beste batzu Aizkorri eta Murumendin.

Era ortara, erri bakoitzak, ingurueta leizeren baten urrenez urren egoten dala Mari uste dute, andik bere ibilaldi ta lanak egiteko.

Mari'ren senideak.—Euskal mitu aunitzetan Mari munduko numen guzien erreginatza artzen dute.

Azkoitiko ipui batetik ageri danez, Mari'k, Maju deritzan senarra omen du, eta Mari'ren antzera agertzen omen da. Numen biok elkartzen diranean izugarritzko euri-iasak eta kazkabarrak egiten omen dute. Baliteke Maju ta Goierriko Sugaar bat izatea. Bakan baizik ez da ageri euskomitologian. Zumaiako erri ipuiak dionez, ostiral oro, arratsaldeko ordubietan Mari ikustera ioaten omen da.

Lope Garcia de Salazar'ek bere "Cronica de siete casas de Vizcaya y Castilla" (1454) liburuan aipatzen dun "Culebro" XV'garren mendeko txerrena, gaurko Sugaar bera da nonbait: "Mundakan bizi zan errege-alaba batekin batu omen zan, eta Bizkaiko lenengo Jaun izango zan aur bat erdi omen zun". Izan ere, aipatu liburuan Lope Garcia de Salazar'ek dionez, Eskozi'ko errege baten alaba bere mirabeekin Mundakara iritxi zan "eta bertan kokatu omen ziran eta an zegola Bizkaian Sugaar (Culebro) zeritzan txerren batekin (etxeke jauna berau) ametsetan lo-egin omen zun; izorratu zun onek, eta errege alaba aurdun gertatu zan eta seme bat egin omen zun gizon eder eta lazo (soin-itxura) onekoa izango zana, eta laun Zuria deitu zioten, erderaz Don Blanco".

Sugoi.—Baltzola-leizeko (Dima) Sugaar'en izena da. Au ere Bizkaiko Jaunen iatorriaren elezarri atxikita dabil.

Ataun, Ordizia, Arano ta beste zenbait errietako ipuietan diotenez, kristau gazte bat Mari'kin maitemindu omen zan eta ezkondu. Zazpi seme ukan zituten. Semeok etzizuten batiatu, Mari Kristau ez baitzan. Bein batez, Senarrak, elizara eramane nai izan zun Mari semeekin batera. Orduan (Mari), garrez inguraturik Murumendiko aitzetara egaldatu zan, au zion bitartean: "ne umeak zerurako,

ta ni oaiñ Mururako", eta mendi artan dagoen aitzulotik bere antxiñako egoitzan sartu omen zan.

Erri-ele au, XVI garren mendearen asieran Don Pedro de Barcellos Kondeak bere "Livro dos Linhagens" en Bizkaiko Iaunen iatorriaz bildu zunaren aldaketa da. D. Diego Lope de Haro'tzaz ari dala, urrengo au dio: "D. Diego Lope de Haro eiztari trebea zan; bein batean, baxurdea noiz etorriko zai zegolarik, aitz baten gainean zegoen andre baten abestia entzun zun oso argi; arenganatu-ta, guztiz ederra zala eta txit ondo iantzita zegola ikusi zun, eta bertan isituki maitemindu zan, eta nor ote zan galdetu zion; eta arek andiki arteko emakumea zala esan zion: Lopek aldiz, andiki arteko zan ezkerre eta bera ere lur aietako Iaun, elkarrekin ezkondu zitezkeala esan zion, andreak ala nai ba'zun; eta emakumeak baietz, balin iñoiz ere "aitaren" ez zula egingo, itz ematen ba'zion; itz-eman zion eta elkarrekin ioan ziran. Andre au guztiz ederra zan eta gorputzez ondo egiña, auntsarena lakoxe oin bat zeukan, ordea. Luzaro elkarrekin bizi ziran, eta bi semealaba ukan zituten, semea Iñigo Guerra". Eta D. Pedro kondeak urrengo au geitzen du. Egun batez D. Diego'k emazte ta seme-alabekin iaten ari zala, ustegabeen "aitaren" egin zun eta emazteak, bat-batean "iauregiko leiotik alaba artuta iauzi egin eta mendietara ioan zan; arrezkero iñork ere ez ditu ikusi, ez ama ta ez alaba". (21)

Badira Mariren bi alaba aipatzen dituten elezarrak; beste batzu egoitzan lagun egiten dionaz ari dira, eta azkenik, bi seme ere izentatzen ditute: *Atarrabi* eta *Mike-lats*, bata ona eta beste au gaiztoa.

Erri irudimenean Mari ez zaigu aurkezten numen edo iainkoiki bakar bat bailitzan, numen-aizpa batzu bailiran baizik. Markiñan, Kanterzarko koban agertzen dan Marije Kobako, Anbotokoaren aizpa dala diote, eta noizik bein elkar ikusten ere dutela.

Tokien arauz irudiak ere ugaritzeko erri-ioera ezaguna da, Andre Mariren deituratatik ageri danez. Erri-ele batzuek Arantzazuko, Lierniako ta Antiguako Amabirjiña (Zumarraga), aizpak bailiran aurkezten dizkigute eta ez Amabirjiña bakarraren agerpenak bezela. Esakera da: "zazpi aizpatxo dira euskaldun Birjiñak". (22)

Aipatu elezar eta siniskizunetatik eratzi ditekenez, Mari ta alegiazko bere senar *Maju* edo *Sugaar*, arbaso ere badira, Bizkaiko Iaunenak diran ezkerre.

Mariren atxillo.—Marik bere menpean dituen zenbatu ezin-ala numenez gainera, neska atxillotu bat agertzen da aren egoitzan. Ipui batek Irabi (Amezketako) basetxeko alaba dala dio; beste batzuetan, ordea, Iturriotz (Mutilloa), Zumaia, Zegama, Orozko, Palasio (Abadiano), Bixiñaga (Aramaio) erri edo basetxeetako alaba dala diote.

Neska atxillotua ere, *Mari* deritza. Etxekandrearen eta atxillotuaren izenkidetasunetik nunbait, bi nor orien egitekoen naspilketa sortu da, batari zegozkion egiñak besteari egotziz. Bein baiño sarriago neonek ere, bi oien egiñak naasi nitun, "Mari o el genio de las montañas" deritzan lantxoan batez ere. "Homenaje a D. Carmelo Echegaray" liburuan argitaratua. Baiña bakoitzaren mituak, obo berezietan mugaturik dabilta, eta ez da komeni naasterik. Elezar batzuetan txit garbi berezirik ageri dira bi nor auek eta bakoitzari dagozkion mituak.

Batzuetan, Mari atxillo, lurpeko eremuetara daramate beraren amak egin promes edo aginduen bat betetzeko.

Sarri-auzoko (Berriz) emakume batek *Mariburrihari* alaba emateko promes egin omen zun, eta agindua betetzearren, numenaren leize-urbillean dagoen Sarrimendi larrera bialdu zun beiak bazkatzen. Orduan ark, neskatzari eldu ta bere egoitzara eraman zun.

Beste batzuetan, amak egin birao edo madarikua dala-ta, atxillotzen dute. Amezketako Irabi basetxeko neska bat zan. Bein batean bigantxa gorri bat paltatu zitzaion. Amak Mariri esan zion billatzeko, baña Mari'k etzun nai izan. Orduan amak biraokatu zun esanaz: "Galtzagorrik eramango al au, ekartzen ezpadun". Eta neska, billa atera zan. Bei gorri bat agertu zitzaion landan. Berea zala uste izan zun Marik, eta arengana urbildurik isatsetik eldu zion. Txerrena zan bei itxurazko ark, lasterka bizian, Larrunarrin (Aralar) dagoen Txindokiko leizera eraman zun *Mari*.

Zegamako basetxe batean orduak eta orduak ematen zitun neska batek illeak orrazten, eta aserre bizitan iartzen zun ama. Egun batez amak, biraokatu zun esanaz: "milla tximistak eamango al aute!". Eta bat batean alaba suntsitu zan. Aizkorriko leize-zulo baten ondoan zegoen artzai bat giza ezurruts baten itxuran agertu zitzaion, eta amak iausti zion biraoagatik atxillotuta zegola esan zion. Mutiloan ere orobat diote. Artzai batek ikusi omen zun argi-erlantza bezala leizean sartzen. Aipatu neskatzari zan.

Ipui batzuetan ez da ageri ez biraoarenik ezta promesarenik ere. Mari leizera urbiltzen zaion neskaz iabetzen da. Anbotoko Marijek, Markiña ondoan dagoen Gabaroko leizera eraman zun artzai-neska bat. Luzero iraun zun leizean ardasketan. Guztiz ondo azi zun eta azkenean, urre zati bat emanda, etxera bialdu zun.

Bidarraiko neska bat *Euskai* (23) mendin artaldea bazkatzen zegoen. Egun batez, etzan geiago agertu. Gau batez ordea, argi-erlantz bat agertu zan eguratsean, izar bat bezelakoa, *Zelharburu* aitzetara zoana, eta ango leize batean sartu zan. Artzai-neska, leize-barnean arkitu zuten auzok, arri biurturik. Arrezkero *Arpeko Saindua* deitzen die. (24)

Mariren ezaugarri ta arazoak.—Zegaman diotenez, maiz agertzen omen da Mari leizeko sukaldean, sutondoan eserita, illeak orrazten. Oñatin ardasketan ikusi dute. Beste askok leize-aoaren ondoan eserita, eguzkitan illeak orrazten. Goiatzen diotenez Mari Muruko bere egoitzaren sarrera aldamenen, eguski danen, arilketan egoten omen da, baita zeruan ekaitz-odei beltzak diranean ere. Ganboako Zuatzun berriz, urrezko ariz aipillak egiten omen ditu ari-mataza ahari baten adar-artean iarrita. Anbotoko leizean. Aketegin asteazkenetan gobara egiten dula eta ostiraletan ogia erre. Leizearen urbillean agertzen dan odeitxo batek iragartzen ditu Mariren zeregin auek. Isnizterkoek, Otoyon odeiren bat ikusten dutenean "Marik labea piztu du" esaten dute.

Oñati ta Aretxabaletan darasatenez, Mari Anbotomendin dagonean euri-iasak egiten omen ditu, Aloñan dagonean berriz, legortea. Orozkon, aldiz, Supelaur'en dagonean uzta ugaria biltzen dala.

Mari ekaitz-gille.—Oyoartzuarrak diotenez, Trinidademendin eta Aralar'en sortzen omen ditu. Zegaman eta Goierriko errietan, Aketegi edo Murumenditik bialtzen omen ditu ekaitzak. Aranon Mugiroko artzulotik bialtzen ditula diote; orduan Mari, zaldi baten itxuran, aidean ibiltzen omen da. Añdureko Marik Aralarko leize batetik ekaitzak ateratzen ditula uste dute Gorritikoek. Leizan, berriz, Maimurren-zubitik aize-zurumilloak Maimurek sortzen ditula uste dute. Araban Oikinako leizetik aize ta ekaitzak ateratzen ditula diñoe. Errioxan Urbiongo putzutik datozela esan oi dute. Leskun aldean, berriz, Anie muturreko Andrea dan Iona-Gorri'k bere egoitzatik

(21) J. M. de Barandiaran, *Die praehistorischen Höhlen in der baskischen Mythologie* ("Paideuma" n, II idazt. 1-2 zenb., Leipzig, 1941).

(22) E. F., LXXIII z. 1-2 orri.

(23) *Iuskai* eta *Iuskadi* ere baderitza.

(24) E. F., 2^o gm. saillo (Ikusko'n).

bialtzen ditula. Tolosan, zalpardi batean iarrita, ekaitzaldietan eguratsa zear pasatzen omen da Mari, eta odeiak ere berak zuzentzen omen ditu. Marik bere burua erakustea aski, ekaitz aundi bat izateko.

Marik, berarengan sinisten dutenak saritzen ditu. Eskoriatzako Aitzxorrotz'tik igaro bear zuten bidari batzu, bat batean, bidearen azkenean arkitu omen ziran. Uste osoa Mari'gan iarri zutelako noski.

Marik, deitzen dietenei, erantzuten die. Iru bidar iarraituan "Aketegiko Damea" ots egin ezkerro, oiur dagionaren burugainean kokatzen omen da, Zegamako ustez, dezka, eta aren erantzunak egizko ta onurakorrak ger-

Zenbait bearkizunetan Mariren gana ioaten ziran galtatzen omen ziran. Ola etzebilkiola-ta, Iraetako olagizona Mari gana ioan zan. Marik esan zion nola konpondu zezakean, eta olagizonak laster ipiñi zun ola lanean. Onelako zerbait Zubillagako olan ere gertatu zan eta Anbotoko Mariri eskerrak lanean iarri al izan zun.

XIV garren mendean ere Mariren gana ioten zuten aipatu "Livro dos Linhagens" en ageri danetik. Orra an irakur ditekena: "Luzarogabe, aipatu D. Diego Lopez, mauruei kalte egitera ioan zan: atxillo arrapatu zuten eta Toledo'ra eramane. Naigabe aundia ematen zion Inigo Gerra bere semeari, aitaren atxillo bear onek, eta lurralde aietakoengana etorri zan aita nola leozpetik atera iakitera. Etzekitela nola, erantzun zioten angoek; mendira ioan zedila eta amari (Lope'ren misteriozko emaztea, Mendiko Andre hura) oalkua galde zezaiola. Zaldi gainean ioan zan, eta arkaitz baten gallurrean arkitu zun ama, eta ark semeari: "Inigo Gerra nere semea, urbildu akit, ondo dakit bada, zertara zatozen". Urbildu zitzaion eta amak: "Aita nola leozpetik atera galdetzerazatoz". Orduan, mendian barna iareie zebillen zaldi bati "Nabar" (Pardal) otsegin zion eta aoko bat ezarri. Zaldiari indarrik bat ere ez egiteko esan zion semeari, ez zelatzerakoan, ez askatzerakoan, ezta iat-edaten ematean ere, ez perratzerakoan. Zaldi onek bizi guzian iraungo ziolakoa ere esan zion eta inoiz ere ez zala burrukan sartuko garai ateratzeko; zaldi gainean iartzeko eta egun berean Toledon izango zala aitaren baitegiko ateran; an zalditik ieisteko, eta korta batean arkituko zun aitari eskutik eldu, eta arekin izketan ari bailitzan, zaldia zegoen aterano eramateko; zaldi gainean biak iarri zitezela eta beren lurraldean izango ziralaz gautu baino len. Eta ala gertatu zan".

Izadi almenen gainetiko Toledotik Bizkairano D. Diego'ren toki-aldaketa —Mariren zaldiaren bitartez—. Dimako elezar batean lekuturik arkitzen dugu egun; mauruen garaian, Baltzola'ko koban bizi zan Sugoiek Ituribeitia basetxeko gudari bat Dimara ekarri omen zun.

Mariren iaurespidea.—Mariri urtero emarien bat egiten dionak, ez omen du bere soroen gainean arri edo kazkabarririk erortzen ikusiko. Kortezubin diotenez, Egin zezaioken emaitzik ederrena, aker bat leize-zulora eramatea omen zan. Elezar askotan ageri danez, aipatu aberea atseginenik omen zitzaion Mari-ri.

Ayako ipui baten edasten dizkigute Anbotoko Mariren leizera artzaiek egiten zuten ibildeun baten gertariak, ez ari ez ekaitzik artaldeetara eror ez zekien.

Beste elezar baten ariora, Mugirotarrek, Maiatzaren 3'garrenean, erritik urbillean dagoen Mariren artzulora ioaten omen ziran, eta apaizak leize-sarreran meza ematen zun. Ez ori bakarrik: meza-garaian Mari arpean arkitzen balin bazan, urrengo urtebetean ez omen zan arririk (kazkabarririk) lurralde artan erortzen.

Isasondoko apaiza zazpiurtero igoten omen zan Murumendira, Mari agertzen dan leizearen atarian meza ematera.

Arpeko Saindu'ra (Bidarray), urtero, erromeri bat egiten dute Trinitatez. Beteri naiz azaleraren bat daukatena otoi egiten diote an iauresten dan artzai-neska arriuari, eta estalagmitazko irudi aren gainetik erortzen dan urez sendatzen omen dira. Done dalazko irudi aren aitzinean erretzeko, iauresleak argizaria eskeintzen dute eta leizean bertan uzten ditute diru ta gurutzak ere, aipatu irudiaren opaz.

Kristautasuna baino len ere, oso zabaldurik zegoen leizetan dirua uzteko oitura, toki artan bizi uste zuten numenaren opaz. Euskalerrian, Isturitz eta Santimamiñeko leizeetan erromatarren diruak arkitu dituzte. Beraz, Zelharburuko leizean egun iauresleak egiten dutena, ientil-aroako oituraren aztarna besterik ez da.

Gure erriko beste tokietan ere, orrelako zerbait egiten dute, ez, ordea, leizeetan, eguzki argitan baizik. Aralar'en, artzairen batek ardirik edo galtzen dunean, Dirua eskeintzen dio Mikel Deunari eta Igaratza zelaiko Amabirjiñaren-arria deritzan arkaitzaren gainean lagatzen du. (25)

Bizkaiko launek, XIV garren mendean, Busturiko arkaitz batean bei-altzarrak uzten zituten euren aurretiko Mariren opaz. Ala dio beintzat D. Pedro Barcellos Kondeak gorago aipatu liburuan: "Bizkaijan ziñoen eta oraindik diñoe, Inigo Gerra'ren ama dala Bizkaiko sorgin eta aztia. Bizkaiko launak Busturi deritzan errian arkitzen diranean, etxean iltzen dituten bei guzian altzarrak opariz eskeintzen dizkie, arkaitz baten gainean egunero utziz; biamonean ez dute ezertxo ere arkitzen. Orrela egingo ez balute, kalteren bat ukanen omen lukete, egunez edo gauzez, eskutariren baten gan edo naigabetuko lituken zerbaiten gan. Bizkaiko launek orrela egin zuten beri. Iban Otxolua (el tuerto) zeritzan launa il arte; baten batzuk, oitura ori baztertu nai izan zuten, bañan gaizki billakatu ziran".

Marirekin nola ari bear dan.—Marirengana zerbait galdetzeko —edo ikustera soilik—, dioanak, urrengo zerok bete bear ditu:

1.—Iketa mintzatu bear zaio.

2.—Sartu dan bezelaxe lezetik irten bear du, ots, barnera begira sartu bada, barnera begira irten bear du bizkarka ibiliz. Baldinkizun au illen baten arima agertzen zaionak bete bear dunaren antzekoa da; ark ere arimaren bekoz-beko bear du.

3.—Mariren egoitzan egon bitartean, ez eseri.

Mariren agindua.—Numen onek, gezurra, lapurreta, arrokeria, antukeria, eman-itza iatea, urkoei lotsa-galtzea eta elkarri ez laguntzea gaitzesten ditu. Oietako batean uts-egingo lukena, utsaren gai berean zigortua ere litzake, gezurgaijan gezurtia, arrokerigaijan arroa. Esana da, Marik bere aletegiak "ezagaz eta baiagaz" betetzen ditula, ots, dana ukatu ta eztana baiesten dutenen itzekaz. Artzai bat artaldeak zaitzen zebillen Murumendin. Alako batean, egarri izan zan eta iturri billa asi zan mendia barna. Leize-ao batera urbildu zan eta bertan, neskatilla oso apainiantzita ikusi zun. Neskak galdetu zion: Zeren billa zabiltza gizona? —Egarria asetzeko ur billa nabil. —Ura? Sagardoa ez ote? Bat batean, neskatillak, pitxar eder bete sagardo aurkeztu zion eta edateko eman. Dastatu zuneko artzaiek esan zion: Ederra sagardoa. Nungo sagarrekin egiña dago? —Montes Ikaztegieta iaunaren ezak eman sagarrekin —erantzun zion leizeko neskatillak— sagar aiek zirana ukatu zulazkoa adieraziz. Ona atsotitz batek diotena: Ezai emana, ezak eman. Ezai eman, egiaren edo elkarrekiko betebearren aurka uts egitea da geientsuenik.

Mariren egoitza ukitu-eziña da.—Mariren arpean deitu gabe sartuko edo ango zerbait bidegabe iabetuko litza-

kenak zigorra duke laster buru gainean. Anbotoko leizearen ondoan zegoen urrezko txanbil bat ostu omen zun mutil batek, gau artan bertan eraman zuten eta betiko suntsitu zan. Eiztari batzuk arriak iaurti zituten Oñatiko Gaiztozulon: andik ialki aize-bolara ta odei batek, bat batean lurrera bota zitun. Otzibarreko arpean, emakume batek, urrezko orrazia laputu omen zun: gau artantxe soroa arriz iosita agertu zitzaion.

Zigorak eta aharoak.—Marik, sarri zigortzen ditu utsegiñak, gaizkilleei barne-kezkak bialduz. Baita gaizkilleen zerbaitetzaz iabeturik ere. Artzaiak balin badira, ahariren bat kentzen die.

Marik erriengainera igortzen dun zigorrik sonatuena inetasia da. Berberak edo bere seme Mikelats'ek ekaitzak lurpetik iraitzen ditu, eta berberak edo bere menpekoek, ibarrik ibar, mendirik mendi eramaten ditute.

Elezarrek diotenez, leize-zulo batzuen aoran mezak atera ta aharoak egiten omen zituten antxiña arri-erauntziak eta beste kalteak alderatzeko.

Ekaitza, eragotzi ezin baldin bada, alderatu ditek beñipeñ, azti aieru (imintzio) ta errezuz. Ipiñazarko (Zeanuri) gizon batek, ekaitza urbiltzen ikusten zunean, ezkerreko eskua *uztai-bedarrez* (Rumex crispus) inguratzen zun eta eskubiarekin nundik ioan bear zun ekaitzari erakusten zion. Ziñoenek, orrela iristen omen zun auzo artatik arri-erauntziak beti baztertzea.

Azti-indarren iabe dirala uste dute zenbaitek eta ekaitz-numenei (Mari ta aren menpeko *Odei* ta *Eate'ri*) esakun

oitu batzu zuzentzen dizkie arri-erauntsia nun iaso edo nun iaurti bear duten esanaz.

Tximista eta oñazkarra Mariri dagozkio edota aren bidaliei. Etxean tximistarik erori ez dedin, ezkaratzean aizkora bat ezarri oi dute zorbatza gora begira duela. Ekaitz-numenak iaurtitako arri leundu bat (neolitosko aizkora) dala uste dute tximista. Gernika aldean tximistari oñeztarri deitzen diote, *oñeztu-arri*. Neolitos garaiko arri edo aizkora ori, tximistaren ikurtzat daukate, etxea tximistatik eta aren kalteetatik zaitzeko. Arrizko aizkora ia ez-ezaguna baita, galtzairuzko aizkora erabiltzen dute tximistaren aurka.

Mariren sinbola edo ikurra igitaia (sega) da. Iakiña da, suzko igitai baten iduriz ortzea igarotzen dula Marik zenbait elezarrek diotenez. Orregatik lantailu au ere, tximistatik babesteko erabilli oi dute, eta ekaitzaldietan, ataurrean, makil baten puntan ezarrita, etxean tximistarik erori ez dedin ipintzen dute.

Mariren inguruan esan, ditugenetatik argi ikus ditek numen au beste guztien erdi-leku ta mitu geienen io-muga ere dala. Ala ere, aren zenbait ezaugarri ta aribideei begiratu ki (lur-numenen eta indarren gain daukan jabetasuna, baita lurpeko gertari edo fainomenuekin bat egiñik dago-lako ere), *lurraren ikur* (sinbola), agian lurraren nortasuna dala esan dezakegu.

—*Iarraitzeko*

Platon Eta Eraklito

Zaitegi eta Plazaola'tar Iokin

Bururik ez ta txapela nai, ari omen naiz urliaren iritziz, ta bururik eztenak txapel bearrik ez omen. Euskeraren etorkizuna dala-ta, burua galdurik ditzut nunbait. Boliteke. Arrezkero buru-bagea beti leen-lerroan, buruduna beti azkenean, gure erritarrek diotenez. Oraingo euskal-idazleok euskara zernaitarako egokierazi nai dizugu. Naiz ta gai sakonenak izan euskara garbiz irauli nai genituke. Ez dugu egon nai ortzak izerdi ta esteak igari. Urliak auxa ziraustan: bertan bera utzi ezaiozu gai zaillak euskeraz irauli nai izateari neurdin gauza garbirik ez duzu egingo. Arogia gazitu ez danean usteltzen dan bezela, bereonelaxe gure idazle aunitz otzitu, nagitu, nasaitu, ta maskortu egin dira aldiotan. Baitik bat gai berri ta zaillak euskeraz emateko. Ez da arritzekoa, aldizkariak oro tutorretik inausi baitizkigute damurik. Gure euskaltzaletasunaren enborra usteldu ez dedin, nonbait, edota izerdiak gora egin dezan, emen dugu maskal-ador bat sendorik eta garabetean, gure aldizkaria, alegia. Ostoz ta liliz kunkuin bedi, igali ederrak ekarri ditzan: ez al dira berandu-markolak eta arberak izango, irunako eta ibarbeltzak baizik. Gure lurren xabala malkartsua da, noski, auzokoena, berriz, zelai-zelaia. Alare, idaztortzak alper eta geldi egonaz ez ditezela galdu ta erdoitu. Zertan ari ditugu aspaldiko Lekuona, "Amilgain", Larrakoetxea, Erkiaga, Manterola, "Ereño", Tapia-Peruarena, "Otxolua", "Abaraska", "Zaizuri" ta abar? Oien amaikatxo idazlan sakon eta eder irakurriak ditugu bearrik. Loak arturik al dauntza? Alakorik ezin siñetsi. Oien lan ederrak atsegiñez argitaraziko genituke noski baiño noskiago. Besterik ezean, or dioakizue lan gordin au, gai berriak irauli nairik. Berez gai zarra izanik berriaren axkurea ta kilika nabaituko duzu, euskertz irakurtzean. Idazle ikasiok begi argiz onetsiko al dute. Biotzez eskeintzen diet.

Iakintzaren alorrean ez duzu atematen aldaketa zakarririk, ez eta bizidunen artean ere: aspaldidanik esana duzu. "natura nihil facit per saltum", ots, naturak ez dizu ezer egiten iauzika, eta iakintzaren edestian ez duzu erabateko asierarik. Eguzkitan erreriko ogirik ez dugu iaten. Arean, bulko edo asmo ezein baten asiera zedarritu al izan arren, gizon iakintsuenek irakatsi aren alde zurre erein zan goiz-azia azaleratuko dizute, baldinbait ere.

Gure gogoaren azterrenik xeenak aldiaren eta giroaren bearra du burutua izateko. Ezaguera utsaren asi-masiak berak neke andia oi dakar: aldi ta neke arego bear ditu iakintza garaiak. Belar askok bear asko.

Iakintza ez zan bat batean sortu Elade ederrean ere, esaterako. Alde aurrez ditugu ango olerkiak: orietan arkitzen dugu iakintzaren goiz-azia.

Eraklit'ek argi ta garbi esan zigun *panta rei*, dana ixurka ioan doa. Asmo onek berriaren berriz beraren aldikoak erabat zotukatu zitun. Biotzondoko aundia egin zien. Zer dala-ta izan genun garaille Eraklit? Asmo berriaren erroek garai artako giza-gogoetan lur apatz eta gizen arkitu zutelako, nik uste.